

-
- [Iruñerria](#)
 - [Barañain-Oltza Zendea](#)
 - [Eguesibar](#)
 - [Ezkaapea](#)
 - [Hego Iruñerria](#)
 - [Hiru Herri](#)
 - [Iruñea](#)
 - [Iruñerria](#)
 - [Nafarroa](#)
- [Komunitatea](#)
 - [Azken ekarpenak](#)
 - [Kolaboratzaileak](#)
 - [Taldeak](#)
 - [Gizabanakoak](#)
 - [Zer da hau?](#)
- [Irratia](#)
 - [Programazioa](#)
 - [Elkartea](#)
 - [Nor gara?](#)
 - [Publizitatea](#)
 - [Bazkidetu](#)
- [Xaloa](#)
 - [Xaloa](#)
-
- [Sartu](#)

Iruñerriko euskaldunon agerkaria

- [Gizartea](#)
- [Politika](#)
- [Ekonomia](#)
- [Kultura](#)
- [Euskara](#)
- [Kirola](#)
- [Agenda](#)
- [Iritzia](#)
- [Nafarroa Wow](#)
- [Irratia Nahieran](#)

Berria

Zuzenketez gain, euskara baturako era hobetsiak ere baditu Xuxenek

b [Berria](#) 2015-11-11 10:50 [Euskara](#)

Euskarazko zuzentzailearen bosgarren bertsioa Interneten eskura jarri dute Elhuyarrek eta IXAk: dohainik da. Eguneratu egin dute datu basea



Argazkia: Cancio, Antola eta Cortes, atzo, Xuxen berria aurkezten. JUAN CARLOS RUIZ / ARP | [Argazki originala](#)
 Euskaraz zuzen idazteko Xuxen zuzentzailearen azken bertsioa sarean da. Bosgarren alea da, eta aldaketa nabarmenak dakartza. Batetik, eguneratua dago: Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua eta Elhuyarren hiztegiak oinarri gisa harturik, datu basea berri dute; bestetik, akatsen zuzenketa ez ezik, Hiztegi Batuko hobespenak ere badakartza Xuxen berriak. Elhuyar fundazioaren eta Euskal Herriko Unibertsitateko IXA taldearen proiektua da euskara zuzentzailearena. Zerbitzua dohainik jarri dute eskura, Interneten.

Hogei urte pasatxo dira Xuxen euskara zuzentzailea sortu zutela. Harrezkero «ezinbesteko tresna» izan da euskarazko testuak idazten dituztenentzat, Xabier Artola IXA taldeko partaidearen esanetan. «Laguntza handia izan da euskararen normalizazioan».

Urteen joanarekin, gaurkotuz joan dira bertsoiak, teknologiaren aldaketetara eta euskararen estandarizaziora moldatzeko. Azken bertsoia da bosgarren Xuxen. Hitz soilen zuzenketaz gain, zuzenketa gramatikalak ere badakartza Xuxenek. Datu baseetan egin dute errepasoa. Hiztegi Batuan aldaketak egiten dituzte aldian-aldian, eta horiek ere txertatu dituzte datu baseetan. Elhuyar hiztegiatiko berritasunak ere bai.

Erabiltzailearen jokabidea

Oker idatzitako hitza edo Euskaltzaindiak hobetsitako ordain bat daukana azpimarratu egiten ditu Xuxenek testu prozesagailuan. Ez da itsu-itsuan jokatu behar, hala ere. Artolak ohartarazi du «kritikotasunez» jokatu behar duela erabiltzaileak. «Kasuan-kasuan erabaki beharko du Xuxeni men egin edo ez». Areago orain, forma hobetsiak ere sartu dituztelarik.

Microsoft Officerako sortu dute azken zuzentzailea. Xuxenen oinarriarekin batera, erabiltzaileek aukera izango dute norbere hiztegia osatzeko. Zuzenketa ortografikoetarako eguneratzeak beste sistema batzuetarako ere sareratu dituzte: Openofficerako eta ohiko nabigatzaileetarako, adibidez. Bestalde, Xuxenen webgunetik ere zuzendu ahalko dira testuak.

Proiektu gehiago ere badituzte esku artean, Itziar Cortes Elhuyarreko Hizkuntza eta Teknologia unitateko kideak aurreratu duenez; sakelakoetarako Xuxen aplikazioa sortzea, esate baterako. Macetako testu prozesagailuetan ere txertatu nahi dute euskara zuzentzailea. Bide hori egiteko elkarlanak duen garrantzia nabarmendu du Leire Canciok, Elhuyar fundazioko zuzendariak. IXA taldea eta Elhuyar, hizkuntza arloa eta informatika batera ari baitira. Xuxenen «sendotasuna» goratu du Canciok, gizartean duen itzala.

Xuxen 5 zuzentzailea eta azken eguneratzeak eskuratzeko, jo hona:

xuxen.eus/bertsioak



Zabaldu artikulua:

Erantzun

Erantzuteko, izena emanda egon behar duzu. **Sartu komunitatera!**

Erabiltzaile izena

Pasahitza

Sartu »» [Alta eman edo pasahitza berreskuratu](#)


[Twitter-ekin](#) [Facebook-ekin](#)



Berrria

Euskarazko egunkari nazionala

- [Twitter](#)



NONNAHI
— serigrafia —

Euskalerrria Irratia

Iratxe monasterioa 45, ezk. eskailera, 13. ezk.
31011 Iruñea - Nafarroa
(0034) 948 17 01 51
info@euskalerrriarratia.com



euskalerrirratia.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)



Jarraitu euskalerrirratia.eus

-
-
-
-

[Codesyntaxek](#) garatua